



AYUNTAMIENTO DE LA VILLA DE ERMUA
ERMUA HIRIKO UDALA

ADIERAZPEN INSTITUZIONALA

1. Erabateko irmotasunez gaitzesten ditugu Errusiako Federazioak Ukrainan burututako ekintza militarrek, nazioarteko zuzenbidea larriki urratzen dutenak, Justifikaziorik gabeko eraso da, Europako segurtasuna eta egonkortasuna kaltetzen dituenak.
2. Premiaz eskatzen dugu Errusiar armada Ukrainatik erabat erretiratzeko eta liskarrak berehala eteteko. Ukrainaren subiranotasuna eta lurralde-osotasuna babesten eta errespetatzen ditugula berresten dugu, eta Minskeko akordioetara itzultzeko deia egiten dugu.
3. Ukrainari eta bere herriari gure elkartasun eta maitasun guztia erakusten diegu. Heriotzak deitoratzen ditugu eta gure atsekaberik sakonena adierazten dugu biktimgatik eta herritarren alferrikako sufrimenduagatik. Sentimendu hori gure herrialdean bizi den ukrainar komunitate osoari zabaltzen diogu.
4. Europar Batasunari eskatzen diogu, nazioarteko komunitate osoarekin koordinatuta, beharrezko laguntza finantzario eta humanitarioa eskaintzeko Ukrainari eta Ukrainako herriari. Larrialdiko erantzun humanitarioan ahaleginak areagotzeko eskatzen dugu. Errusiar nazioarteko zuzenbide humanitarioa errespetatzeko betebeharra gogorarazten diogu.
5. Europar Batasunari eskatzen diogu ahalik eta lasterren antola dadila, eraso militar hau sortzen ari den errefuxiatuak ahalik eta baldintza onenetan hartzeko.
6. Errusiako Federazioari irmoki exijitzen diogu nazioarteko legedia errespetatzeko, armak uzteko eta bide diplomatikoei berriro ekiteko.
7. Europar Batasunari eskatzen diogu gatazka arintzera eta bakeari eustera bideratutako kudeaketa diplomatikoak bultzatzeko ahaleginak areagotzeko.
8. Eskatzen dugu autonomia-erkidegoekin eta tokiko erakundeekin koordinatutako planean, ukrainar errefuxiatuei gure herrialdean harrera egiteko aurrerapausoak ematen jarraitzeko.